XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

1475

INSTRUKZIOA, 2016ko martxoaren 15ekoa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez 1942/1993 Errege Dekretuaren arabera (Suteen Aurkako Babeserako Instalazioei buruzko Erregelamendua) suteen aurkako babeserako instalazioak martxan jartzeko aplikatu beharreko UNE arauaren bertsioari buruzko irizpidea ezartzen baita.

Lurralde-ordezkaritzen zerbitzu teknikoetan zalantza bat planteatu zen; hau da, UNE 23007 arauaren (suteen detekzio eta alarma sistemak) zein bertsio izan behar den kontuan 1942/1993 Errege Dekretuaren arabera suteen aurkako babeserako instalazioak martxan jartzeko: edo UNE 23007/14:1996 bertsioa, 1998ko apirilaren 16ko Aginduan jasotako bertsioa (BOE, 101. zk., 1998-04-28koa), edo UNE 23007/14:2014 bertsioa, Industriaren eta Enpresa Txiki eta Ertainen Zuzendaritza Nagusiaren 2014ko martxoaren 6ko Ebazpen bidez onartua (BOE, 71. zk., 2014ko martxoaren 24koa).

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak txostena eskatu zion Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzari, eta, 2016ko martxoaren 11n, honako ondorio hauek jakinarazi zituen:

1.– 1942/1993 Errege Dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean (gaur egun, lehenengoa) ministroari ematen zaion baimena bertan jasotzen diren UNE arauen zerrenda eguneratzeko baimena da; hau da, arau horiek beste UNE arau batzuekin edo UNE-EN arau berriekin ordeztu behar direnerako.

2.– 2014ko martxoaren 6ko Ebazpena (UNE 23007/14:2014 araua iragartzen duena) bat dator 1998ko apirilaren 16ko Aginduaren hamaikagarren atalean ezarritakoarekin eta 2200/1995 Errege Dekretuan ezarritako araubidearekin.

3.– 1942/1993 Errege Dekretuan aipatzen den UNE arauaren bertsio eguneratua argitaratuta, arau horrek aplikagarritasunari dagokionez bertan aurreikusten diren ondorioak izango ditu, dagokion ebazpenak ezartzen duen egunetik aurrera.

Hori guztia kontuan izanda, EAEko hiru lurraldeetan irizpidea bateratzeko xedez, honako instrukzio hau ematen dut:

1942/1993 Errege Dekretuaren arabera suteen aurkako babeserako instalazioak martxan jartzeko orduan, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko lurralde-ordezkaritzetako zerbitzu teknikoek egiaztatu beharko duten UNE arauaren bertsioa, dagokion ebazpenak ezartzen duen egunetik aurrera, Industria, Energia eta Turismo Ministerioak argitaratu duen azkena izango da.

Instrukzio hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera aplikatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoaren 15a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.